1.El Consejo de Administración se responsabilizará de la llevanza y formulación de cuantos libros, registros, programas y documentos económicos, presupuestarios y contables se establezcan con carácter obligatorio por la Diputación Foral de Gipuzkoa, en la Ley, o señale la Junta General.

2.Las cuentas anuales y el informe de gestión deberán ser firmados por todos los administradores de forma mancomunada. Si fallara la firma de alguno de ellos, se señalará en cada uno de los documentos en que falte, con expresa indicación de la causa.

TITULO VI

DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

Artículo 48. Causas de disolución.

La sociedad se disolverá por resolución judicial y en los casos impuestos por la Ley, por acuerdo adoptado por la Junta General, con los requisitos del artículo 363 y siguientes de la Ley de Sociedades de Capital.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

Artículo 49. Liquidación.

Una vez acordada en forma preceptiva la disolución de la sociedad, para la práctica de la misma se aplicarán las normas establecidas en los artículos 371 y siguientes de la Ley de Sociedades de Capital.

Artículo 50. Distribución del haber social.

El patrimonio o haber social líquido que resulte de la liquidación de la sociedad se distribuirá entre las acciones en proporción a su capital desembolsado.

TITULO VII

DIVERGENCIAS Y OTRAS DISPOSICIONES

Artículo 51. Divergencias.

La Junta General resolverá sobre las divergencias que surjan dentro del Consejo de Administración.

Artículo 52. Remisión a normas legales.

Toda remisión a normas legales hecha en los presentes estatutos, se extenderá también a aquellas que interpreten, amplíen, condicionen o modifiquen las vigentes, en todo aquello que no dejen a la voluntad de la sociedad.

Artículo 53. Fuero.

Las cuestiones que se susciten con ocasión de la interpretación o aplicación de los presentes estatutos se someterán a la jurisdicción y competencia de los Juzgados y Tribunales del domicilio social.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

GIPUZKOA ZAINDUZ, SOZIETATE ANONIMOA" SOZIETATEA ARAUTZEKO ESTATUTUAK

I. TITULUA

IZENA, XEDEA, EGOITZA ETA IRAUPENA

1. artikulua. Izena eta araubide juridikoa.

“GIPUZKOA ZAINDUZ, SA” izenarekin, merkataritzako foru sozietate bat eratzen da, pertsona bakarrekoa (aurrerantzean, «sozietatea»). Sozietatea Estatutu hauek arautuko dute, eta bertan aurreikusten ez den guztian Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren (aurrerantzean, «Kapital Sozietateen Legea»), Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren eta merkataritzako foru sozietateei aplikatzen zaien gainerako araudi bereziaren arabera jokatuko da.

2. artikulua. Sozietate xedea eta atxikitzea.

1. “GIPUZKOA ZAINDUZ, SA” foru sozietate publikoaren sozietate xedea honako hau da: Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztutako sektore estrategikoetan beharrezkoak diren baliabide eta azpiegituren eraikuntza eta/edo egokitzapena bultzatzea, lehentasuna gizarte babesaren arloan dagoen eskariari erantzuteko esku hartzeei emanez.

2. Helburua lortzeko, sektore publiko, pribatu eta komunitarioaren arteko lankidetza eredua bultzatuko da; hain zuzen, merkataritzako foru sozietateak parte hartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere lurralde eredua garatzeko estrategikotzat jotzen dituen azpiegiturak eraikitzea sustatzen duten sozietate mistoen eraketan.

3. Sozietateak bere xedea osatzen duten jarduerak garatu ahal izango ditu, Zuzenbidean eta, bereziki, kasuan-kasuan erabakitzen diren baldintzetan onartuta dagoen edozein modutan, beste sozietate batzuetako akzio edo partizipazioen titulartasunaren bidez, baldin eta sozietate horien xedea bada eraikuntza lanak egitea, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinak arautzen dituen birgaitze lanei buruzko III. puntuan aurreikusita eta eraikuntzari lotuta dagoen esku-hartzeren bat, edota obra egin ondoren eskura jartzea (ordenamendu juridikoak gaitzen duten edozein ereduren bidez), aipatu zerbitzuak emateko; horrez gain, sozietate xedea betetzen lagun dezakeen edozein modalitate finantzarioren baliatu ahal izango du.

4. Gizarte babesaren arloan, sozietate misto horiek eratuz, indartu egingo da irabazteko asmorik gabeko gizarte ekimenarekiko lankidetza, 6/2016 Legeak, maiatzaren 12koak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoak, xedatutakoa betez.

Edonola ere, foru sozietateak, beste administrazio publiko batzuekin edo sektore publikoko erakundeekin batera parte hartu ahal izango du lurraldeko azpiegitura estrategikoak eraikitzea helburu duten sozietate mistoetan ere.

5. Sozietatearen EJSN nagusia, inbertsioa egiteko hautatzen dituen sozietate mistoen partizipazio edo akzioen titulartasuna izango duenez, 64.20 da.

3. artikulua. Eragiketen hasiera eta iraupena.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

1. Sozietatea aldi mugagabe baterako eratzen da, eta eragiketak eraketaren eskritura publikoa emateko egunean bertan hasiko dira.

2. Batzar Nagusiak, Estatutu hauetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzak betez, edozein unetan hartu ahal izango du sozietatea desegin eta likidatzeko, baita ere beste sozietate batzuekin bat egin edo zatitzeko erabakia.

4. artikulua. Egoitza soziala.

Egoitza soziala Donostiako Gipuzkoa Enparantza z/g izango da, eta aldatu ahal izango da, hala erabakitzen badu Batzar Nagusiak, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan. Administrazio Kontseiluak edozein tokitan jar ditzake bulegoak, sukurtsalak, agentziak edo ordezkaritzak, baita horiek lekuz aldatu eta kendu ere, eta Kontseiluak berak erabakitako zereginak, gaitasunak eta funtzionamendu modalitateak esleitu ahal dizkie.

II. TITULUA

INBERTSIOA ETA DESINBERTSIOA EGITEKO IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK PARTAIDETUTAKO SOZIETATEETAKO SOZIETATE ORGANOETAN

1. ATALA

INBERTSIOA ETA DESINBERTSIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

5. artikulua. Inbertsio politika.

1. Partizipazioak eskuratzeko politika une guztietan bat etorriko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren indarreko planifikazio estrategikoarekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoak bere planifikazio estrategikoan lehentasunezkotzat jo diren sektoreetan, batez ere, gizarte zerbitzuen sektorean, jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide, zentro eta azpiegiturak izan ditzan.

2. Inbertsioa eta desinbertsioa egiteko irizpideek, baita sozietate organoetan parte hartzeko eta partaidetutako sozietateetan erabakiak hartzeko jarraibideek ere, publikotasunaren, gardentasunaren eta gobernu onaren printzipioak bete beharko dituzte, baita Estatuko laguntzei aplikatzen zaion Europako araudia ere.

6. artikulua. Sozietateen kapitalean parte hartzeko irizpideak.

Sozietateen kapitalean eta funtzionamenduan parte hartzea baloratzeko prozesuan, honako irizpide hauek betetzen direla bermatuko da:

a) Partaidetutako sozietatearen xedea bere sozietate xedean adierazitako baliabide, zentro eta azpiegiturak eraikitzeko edo birgaitzeko lanak dira izango.

b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapako zerbitzuak ematen dituzten edo emango dituzten egoitzen edo bestelako zentroen kasuan, foru eskumenekoak badira, lehenago aipatutako jarduerak behin bukatuta, kudeaketarako eskura jartzea, ahal bada, Estatutu hauen 2.4 puntuan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

c) Egoitza edo dagokion zentroa behin eraikita edo birgaitze lana behin bukatuta, ondasun higiezina kudeatzeko eta gizarte zerbitzuak emateko, ordenamendu juridikoak onartzen dituen modu guztien artean sozietate xedea betetzeko egokientzat jotzen den moduan

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

jarriko da eskura.

7. artikulua. Partizipazioen balorazioa.

Merkataritzako foru sozietateak eskuratzen dituen partizipazioen balorazioa egiteko, finantza merkatuetan aktiboak eta pasiboak baloratzeko eskuarki onartuta dauden printzipio eta metodologiak aplikatuko dira.

8. artikulua. Gardentasuna inbertsioa eta desinbertsioa egiteko politikan.

Inbertsioa eta desinbertsioa egiteko politika gardena izango da, bai inbertitzeko hasierako erabakiari dagokionez, bai partizipazioak eduki bitartean. Urteko memoria argitaratuko da, partaidetutako erakunde guztien zorroari dagokionez.

9. artikulua. Partaidetzaren iraupena.

Merkataritzako foru sozietateak sozietate mistoetan izango duen partaidetzak ondasun higiezina kudeatzen edo ustiatzen duen erakundeak Foru Aldundiarekin egoitzako edo zentro sozialeko plazak itundu arte eta ematen diren gizarte zerbitzuen kudeaketaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatu arte iraungo du gutxienez.

10. artikulua. Sozietateetako kapitala ateratzeko irizpideak.

Dagokion kapitala eskuratzearekin batera, entitate bazkideen edo estatutuz kanpoko hitzarmenen itun bat formalizatu ahal izango da, besteak beste, honako hauek arau ditzakeena: merkataritzako foru sozietateak eskuratutako akzio edo partizipazioak saltzeko aukera, Estatutu hauen 9. artikuluan aurreikusitako baldintzetan; edota bazkide guztien konpromisoa, sozietate mistoak gizarte zerbitzuetarako eraiki duen zentroaren edo azpiegituraren kudeaketa, ahal bada, Hirugarren Sektore Sozialeko entitate inbertitzaile eta kudeatzaile baten esku uzteko.

2. ATALA

SOZIETATE ORGANOETAN PARTE HARTZEKO ETA PARTAIDETUTAKO SOZIETATEETAN ERABAKIAK HARTZEKO JARRAIBIDEAK

11. artikulua. Jarraibideak.

1. Edozein sozietatetan parte hartzeak administrazio organoan GIPUZKOA ZAINDUZ, SAren ordezkari gisa arituko den pertsona bat (gutxienez) izendatu beharra ekarriko du berekin. Pertsona horrek behar bezalako gaitasuna eta dagozkion eginkizunak betetzeko kualifikazio profesional egokia izan beharko du.

2. Partaidetutako sozietate bakoitzaren administrazio organoan GIPUZKOA ZAINDUZ, SAren ordezkari gisa arituko diren pertsonek Foru Aldundiak bere jarduera garatzeko ezarri dituen planifikazio eta estrategiekin bat jokatuko dute.

12. artikulua. Entitate bazkideen ituna.

Aurreko artikuluetan aipatutako kasuez gain, GIPUZKOA ZAINDUZ, SAk erabaki ahal izango du sozietatearen akzio edo partizipazioen eskuraketari lotuta entitate bazkideen itun bat edo estatutuz kanpoko hitzarmenak sinatzeko eskatzea, non honako betebehar hauek ezartzen diren: akzio edo partizipazioak aldi batez eskualdatu ezin izatea, dibidenduen banaketa aldi batez mugatzea, erosketa- eta salmenta-aukerak edota sozietatearen xede diren egoitzak edo

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

zentro sozialak eraikitzeari edo birgaitzeari lotutako erabakiak hartzeko gehiengo kalifikatuak.

III. TITULUA

KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

13. artikulua. Kapital soziala.

1. Kapital soziala hamar milioi (10.000.000) euro da, mila euroko balio nominala duten hamar mila akzio izendun arruntetan banatuta; mota bakar bateko akzioak dira, batetik hamar milara doazen zenbaki korrelatiboak dituzte eta guztiak harpidetuta eta hasiera batez % 75etan ordainduta daude.

2. Ordaindu gabeko diru ekarpenak egiteko epea ezingo da bost urte baino luzeagoa izan, sozietatearen eraketa onartzen duen Foru Dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. Administrazio Kontseiluak erabakiko du gainerako kapital soziala ordaintzeko noiz eskatu, aipatutako gehieneko epearen barruan.

14. artikulua. Akzioak.

1. Akzio izendunak izango dira eta bakoitzak mila (1.000) euroko balio nominala izango du; guztiak mota berekoak izango dira eta eskubide berberak emango dizkiete legezko edukitzaileei.

2. Akzioek zenbaki korrelatiboak eramango dituzte, Administrazio Kontseiluaren bi kidek sinatutako liburuxka gisa jaulkiko dira eta Erregistro Liburu berezian apuntatuko dira, akzioen jabetza, akziodunaren izena edo sozietate izena eta helbidea adierazita. Halaber, akzioen eta beren gaineko eskubide errealen eskualdaketak inskribatuko dira. Erregistroan inskribatzea ezinbesteko baldintza izango da sozietatearen aurrean bazkide izatea edo tituluei lotutako eskubideen titulartasuna egiaztatzeko.

3. Inskripzioak nahitaez jasoko ditu Kapital Sozietateen Legearen 114.1 artikuluan eskatzen diren datu guztiak.

4. Sozietatea gaitu egiten da akzio bat edo gehiago biltzen dituzten tituluak jaulkitzeko, egokitzat jotzen duenean; akzio bakarreko edo anitzeko tituluak izango dira, hurrenez hurren.

15. artikulua. Pertsonabakartasuna.

Sozietatearen legezko titulartasuna entitate juridiko-publikoa den Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Foru Aldundia bazkide bakarra da, eta horrek Kapital Sozietateen Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako pertsona bakarreko sozietatearen araubide juridikoa aplikatzea dakar.

16. artikulua. Akzioen titulartasuna.

Akzioak banaezinak dira sozietateari dagokionez, hau da, sozietateak jabe bakar bat onartzen du akzio bakoitzaren kasuan. Akzioen jabekidetza, gozamena edo bahia bezalako kasuetan, kapital sozietateei buruzko araudiak gai horiei buruz xedatzen duenari jarraituko zaio.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

17. artikulua. Akzioak eskualdatzeko aukera.

Sozietatearen izaera publikoa (pertsona bakarrekoa) eta xedeak direla eta, akzioak eskualdatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren erabaki bat beharko da, Kapital Sozietateen Legearen 120. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

18. artikulua. Kapitala handitzea eta murriztea, eta obligazioak jaulkitzea.

1. Kapital soziala handitu edo murriztu ahal izango da, behin edo gehiagotan, Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako moduan.

Kapitala handitzen den kasuetan, baliteke aurreikusitako kapital handitzea osorik harpidetu beharrean benetan egindako harpidetzei dagokien zenbatekoan soilik egitea, Kapital Sozietateen Legearen 311. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Sozietateak obligazioak jaulki ahal izango ditu, Kapital Sozietateen Legean eta Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan aurreikusitakoari jarraikiz, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko finantzen eta aurrekontuei buruzko araudi aplikagarrian xedatutakoa betetzea galarazi gabe.

IV. TITULUA

SOZIETATEAREN ORGANOAK

19. artikulua. Sozietate organoak.

Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseilua sozietatea arautu eta administratu behar duten organoak dira. Horrek ez du eragotziko Batzar Nagusiak berak edota Estatutuen edo Legearen xedapen batek izenda ditzakeen beste kargu batzuk egotea.

1. ATALA

BATZAR NAGUSIA

20. artikulua. Batzarraren burujabetza.

Batzar Nagusia sozietatearen gobernu organo burujabea da.

21. artikulua. Batzar motak.

1. Batzar Nagusia ohikoa edo ohiz kanpokoa izango da.

2. Ohiko Batzar Nagusia urtean behin bilduko da, ekitaldi bakoitzaren lehenengo sei hilabeteetan, sozietatearen kudeaketa ikuskatzeko, hala badagokio, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko, emaitza nola erabili erabakitzeko, baita ere indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baldintzak betez deialdian jaso den beste edozein gai eztabaidatzeko eta ebazteko. Ohiko Batzar Nagusian, halaber, ez ohiko gaiei buruzko erabakiak har daitezke.

22. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.

Bai ohiko batzar nagusiek, bai ez-ohikoek burujabetza osoa izango dute sozietatearekin zerikusia duten gai guztiak ezagutzeko, muga bakarrak indarrean dagoen legediak beste

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

zuzendaritza organo batzuei esleitzen dien eskumenaren ondoriozkoak izanik. Batik bat, honako hauek dagozkie:

a) Txostena, Balantzea eta Kontuak aztertu, eztabaidatu eta onartzea edo, hala badagokio, gaitzestea, eta emaitza nola erabili ebaztea.

b) Administrazio Kontseiluaren kudeaketa ontzat eman edo gaitzestea eta, hala badagokio, kontseilariei bidezko erantzukizunak eskatzea, kargutik kentzea galarazi gabe.

c) Administrazio Kontseiluak aurkezten dizkieten gaien inguruan eztabaidatu eta ebaztea.

d) Administrazio Kontseilua osatu behar duten pertsonak hautatzea, eta presidente zein presidenteordea izendatzea.

e) Sozietatearen zuzendari nagusia eta goi-karguak izendatzea eta kargutik kentzea, hala badagokio, baita dagozkien soldatak eta haborokinak esleitzea ere.

f) Behin edo gehiagotan, erabakia hartzea kapital soziala handitu edo murrizteko eta akzioak jaulki edo amortizatzeko.

g) Zorpetze eragiketak egiteko baimena ematea, indarrean dagoen araudiak merkataritzako foru sozietateentzat ezarri duen araubide juridikoari jarraikiz.

h) Sozietatea eraldatu, desegin eta likidatzeko, edota eratuta dagoen edo eratuko den beste sozietate batekin (batzuekin) bat egiteko erabakia hartzea.

i) Estatutuen edozein atal edo alderdi eraberritzea.

23. artikulua. Biltzeko tokia.

Batzarrak sozietatearen egoitza soziala dagoen udal mugartean bilduko dira.

24. artikulua. Bazkide bakarraren eskubideak erabiltzea.

Bazkide bakarraren eskubideak, konpainiaren Batzar Nagusian Foru Aldundiari dagozkionak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak hartuko ditu bere gain.

25. artikulua. Batzar unibertsala.

Nolanahi ere, Batzar Nagusia, biltzeko deia Administrazio Kontseiluak egin ez badu ere, modu baliozkoan eraturik geratuko da edozein gai eztabaidatzeko, hala erabakitzen badu Diputatuen Kontseiluak, sozietatearen bazkide bakar gisa.

26. artikulua. Bazkide bakarraren erabakiak.

Bazkide bakarraren erabakiak aktan jasoko dira, berak edo beraren ordezkariak sinaturik, eta bazkideak berak zein sozietatearen administratzaileek exekutatu eta formalizatu ahal izango dituzte.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

2. ATALA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

27. artikulua. Administrazio Kontseilua.

Administrazio Kontseiluak zuzendu, kudeatu eta ordezkatuko du sozietatea, eta bere eskumenen eta gaitasunen muga bakarrak Estatutu hauek eta Legeak Batzar Nagusiari esleitu dizkioten eskumenetatik datozenak izango dira. Presidente karguan arituko den pertsona batek eta 5-11 kidek osatuko dute; kide horiek Sozietatearen Batzar Nagusiak hautatuko ditu.

28. artikulua. Izendatzea.

1. Administrazio Kontseiluko kide aukeratua izateko, ez da beharrezkoa sozietateko akzioduna izatea.

2. Pertsona fisikoak zein juridikoak izendatu ahal izango dira Administrazio Kontseiluko kide, baina bigarren horiek karguari dagozkion eginkizunak beteko dituzten pertsona fisikoak izendatu beharko dituzte.

3. Administrazio Kontseiluko kide izateko izendapenak onartzen den unetik izango ditu ondorioak, eta Merkataritza Erregistroan inskribatzeko aurkeztu beharko da.

29. artikulua. Bateraezintasunak eta debekuak.

Ezingo dira Kontseiluko kide izan Kapital Sozietateen Legearen 213. eta 224. artikuluetan (hurrenez hurren) aipatzen diren debekuak edo bateraezintasunak dituzten pertsonak, ezta administrazio publikoetako goi-kargu eta funtzionarioen bateragarritasunak arautzen dituen legedian aipatutako bateraezintasun arrazoiak dituztenak ere.

30. artikulua. Karguaren iraupena.

1. Kontseiluko kideen agintaldiak lau urte iraungo du, eta beste behin edo bitan berriro hautatua izateko aukera egongo da, iraupen bereko aldietarako.

2. Kontseiluko kideen izendapena iraungi egingo da, epea behin amaituta, hurrengo Batzar Nagusia egin denean edo ohiko Batzar Nagusia egiteko legezko epea igaro denean.

3. Batzar Nagusiak edozein unetan erabaki ahal izango du Administrazio Kontseiluko kide diren pertsonak kargutik kentzea. Halaber, kargua utzi ahal izango dute askatasunez uko eginda, sozietateari idatziz jakinarazi ondoren.

4. Administrazio Publikoak ordezkatzeko aukeratutako administrariak kargutik kendu ahal izango dira, haiek izendatu dituen agintaritzak edo organoak berariaz hala erabakitzen badu.

31. artikulua. Ordainsariak.

Administrazio Kontseiluko kide izateak ez dakar ordainsariren bat jasotzeko eskubiderik, baina, hala badagokio, kideek Batzar Nagusiak urtero erabakiko duen konpentsazioa jasoko dute bileretan parte hartzeagatik; hain zuzen, bertaratzeagatik ematen diren dietak izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko kargudunentzat eta langileentzat aurreikusitakoak edo aurreikus daitezkeenak, kode etikoari jarraikiz.

32. artikulua. Erantzukizunak.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

1. Administratzaileek sozietatearen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean –bazkide bakar gisa– eta sozietatearen hartzekodunen aurrean erantzun beharko dute Legearen edo Estatutuen kontrako egintzen ondorioz edota kargua behar bezalako arduraz ez betetzearen ondorioz eragin dituzten kalteengatik.

2. Erantzukizun solidarioa izango dute egintza kaltegarria gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen administrazio organoaren kide guztiek, honako hau frogatzen dutenek izan ezik: erabakia hartu edo betearaztean esku ez hartzeaz gain, ez zekitela erabaki hori hartu zenik edo, jakin arren, kalteak saihesteko komenigarria zen guztia egin zutela, edo, gutxienez, espresuki jo zutela erabakiaren aurka.

3. Egintza edo akordio kaltegarria Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak ez du, inola ere, erantzukizuna salbuetsiko.

33. artikulua. Administrazio Kontseiluko karguak.

1. Batzar Nagusiak izendatutako pertsona izango da Administrazio Kontseiluaren buru, eta izendapenik egin ezean, Administrazio Kontseiluak berak hautatuko du beren kideen artean kargu hori beteko duen pertsona.

2. Administrazio Kontseiluak presidenteorde bat edo gehiago eduki ahal izango ditu, era berean, Batzar Nagusiak hautatutakoak.

3. Administrazio Kontseiluak idazkari bat hautatuko du, eta kontseilaria izan daiteke edo ez. Ez bada, hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezingo du bozkatu Kontseiluaren eztabaidetan. Idazkaria kanpoan badago, Administrazio Kontseiluak bileran bertan hautatutako kide batek ordezkatuko du bere eginkizunetan.

34. artikulua. Kontseiluaren bilerak.

1. Kontseilua sozietatearen interesak eskatzen duen guztietan bilduko da, presidenteak edo kideen heren batek (edo gehiagok) hala eskatuta; orduan, deialdia hamabost eguneko epean bideratuko da.

2. Nolanahi ere, hiru hilean behin gutxienez bilera bat egin beharko da.

3. Kontseilua sozietatearen egoitzan bilduko da, kontseilari guztiek aho batez bestela erabakitzen ez badute behintzat.

4. Administrazio Kontseilua bide telematikoz ere bildu ahal izango da, baldin eta behar bezala bermatzen bada kideen eta ordezkarien nortasuna egiaztatzea eta bileran beren eskubideak baliatzea. Deialdian azalduko dira epeak, nondik norakoak eta Kontseiluko kideen eskubideak erabiltzeko moduak, bilera behar bezala egiteko aurreikusitakoak.

5. Deia pertsonalki eta idatziz, edota egin izana jasota geratzea ahalbidetzen duen beste edozein bide erabiliz egingo zaie Administrazio Kontseiluko kide guztiei, bilera eguna baino berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez, premiazko kasuetan izan ezik, bilera egiteko eguna, ordua, tokia eta jorratuko diren gaiak adierazita.

6. Kontseilua deialdirik egin gabe bildu ahal izango da, Kontseiluko kide guztiak bertaratzen badira eta bilera egin nahi dutela aho batez erabakitzen badute.

7. Administrazio Kontseiluaren bileretan parte hartuko dute, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidearekin, sozietatearen zuzendari, langile eta aholkulariek, presidenteak parte hartzeko deia egin badie.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

35. artikulua. Kontseilua eratzea eta erabakiak hartzea.

1. Kontseilua modu baliozkoan eratuta dagoela joko da, baldin eta kideen erdiak gehi kide bat bertan badaude edo ordezkatuta badaude.

2. Kontseiluaren bileretan ordezkaritza izateari dagokionez, Kontseiluko beste kide baten esku utzi beharko da nahitaez eta idatziz eman beharko da bilera jakin baterako.

3. Kontseiluaren kideek –bertan daudenek edo ordezkatutakoek– gehiengoz hartuko dituzte erabakiak, legeak bestelako gehiengoa eskatzen duen kasuetan izan ezik, eta presidentearen edo legez bere ordez ari den pertsonaren kalitateko botoak ebatziko ditu berdinketak.

36. artikulua. Aktak.

1. Kontseiluaren bilera bakoitzaren ostean akta bat egingo da, non jasota utziko baitira honako hauek: bertaratu direnen kopurua eta nortasuna, emandako ordezkaritzak, jorratuko gaien laburpena, hartutako erabakiak eta egindako bozketen emaitzak. Aktak exekuzio indarra izango du, onartzen denetik aurrera; akta Kontseiluaren bileraren ostean onartuko da, edo egingo den hurrengo bileran. Akta liburuan apuntatuko da, eta presidenteak eta idazkariak sinatuko dute.

2. Akten ziurtagiriak idazkaritzak emango ditu, edo bestela, presidentearen edo hura legez ordezkatzen duen pertsonaren oniritziarekin emango dira.

37. artikulua. Administrazio Kontseiluaren ahalmenak.

Administrazio Kontseiluak sozietatea zuzendu eta kudeatzeko ahalmen gorenak ditu eta sozietate xedean agertzen diren jarduera guztiak egin ditzake, muga bakarrak Legeak ezarritakoak, sozietatearen izaera publikoaren ondoriozkoak eta Estatutu hauetan adierazitakoak izanik.

Batzuk aipatzearren, baina guztiak zerrendatzeko asmorik gabe, bere eskumeneko ahalmenak honako hauek dira, besteak beste:

a) Batzarra biltzeko deialdia –ohikoa zein ez-ohikoa– egiteko erabakia hartzea, dagokion moduan eta unean, Estatutu hauei jarraikiz, eguneko gai-zerrenda osatuz eta bidezko proposamenak formulatuz, deialdiaren xede den Batzarraren izaeraren arabera.

b) Ohiko Batzar Nagusia biltzeko deialdia egin aurretik, aurreko abenduan bukatu zen ekitaldiaren balantzea, galdu-irabazien kontua eta, halakorik egonez gero, irabaziak banatzeko proposamena formulatzea. Halaber, dokumentu horien edukia eta ekitaldiko gertakari aipagarrienak jasotzen dituen azalpen txosten labur bat idatziko du.

c) Sozietatearen sukurtsalak, agentziak eta ordezkaritzak komenigarritzat jotzen duen tokian irekitzea, ixtea eta lekuz aldatzea.

d) Sozietateko langile guztiak kontratatu eta kaleratzea, goi-karguak izan ezik, eta beren ordainsariak erabakitzea; hori guztia, Batzar Nagusiak emandako irizpideen arabera.

e) Sozietatearen ordezkari izatea agintaritza, korporazio, erakunde eta pertsona pribatu guztien aurrean, edozein mota eta jurisdikziotako auzitegi eta epaitegietan, eta estatu, probintzia, udalerri eta autonomia erkidegoaren mailako antolakunde, zentro eta bulegoetan, prozedura, akzio eta errekurtso guztietan, administratiboetan, zibiletan, kriminaletan, administrazioarekiko auziei lotuta dauden horietan, gobernukoetan,

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

sozialetan, ekonomiko eta fiskaletan agertzeko ahalmena izanik; izapide, instantzia, intzidentzia eta errekurtso guztien bidez jarraitu ahal izatea; judizioan aitortu eta lekuko deklarazioak egin ahal izatea, egokitzat jotzen dituen horietan atzera egin, amore eman eta libreki bertan behera uztea; beste pertsona batzuk bere ordezkari gisa aritzea, letradu eta prokuradoreak barne, kasu eta kontu bakoitzean interesatzen zaizkion ahalordeak eta derrigorrezko gaitasun guztiak emanez.

f) Merkataritza sozietateak, Ekonomia Intereseko Europako Taldeak, ekonomia intereseko enpresa taldeak edo aldi baterako enpresa elkarteak, obligaziodunen sindikatuak eta, oro har, mota guztietako erakunde juridikoak, komenigarritzat jotzen dituen estatutu eta itunekin, eratu, aldatu, bat egin, eraldatu eta desegitea; horrelako sozietateetan partizipazioak edo akzioak harpidetzea eta ordaintzea; ondasun higigarriak zein higiezinak ekarpen gisa ematea eta sozietate horiei ekarpen gisa emandako ondasunen balioespenak onartzea; sindikatzeko eta akzio zein obligazioak elkartzeko kontratuak egin, aldatu eta azkentzea; erakundeetako eta erakundea kide den sozietateetako organoetan egotea eta horien kide izatea, eta, kidetasun horrek sozietateari ematen dizkion eskubide guztiak baliatzea.

g) Ondasun higigarriak zein higiezinak, makinak, ibilgailu motordunak, kredituak, eskubide edo akzioak erosi, saldu, laga, trukatu eta hipotekatzea, Sozietatearentzat interesgarri iritzitako prezio, baldintza, epe eta ordaintzeko moduetan; mota guztietako lizitazio, enkante eta lehiaketetan esku hartzea; lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatzea; erkidegoak amaitzea eta beste batzuekin amankomunean izandako gauzak banatzea; finka bereizteak egin, partzelak elkartu, banaketa materialak gauzatu, obra berriak egin direla aldarrikatu, eta finken deskripzio berriak egin, mugak zehaztu, lurrak neurtu eta mugarriak jartzea; jabetza horizontaleko araubidearen arabera higiezinak banatu, guztien parteak arautzeko eta gastuak banatzeko estatutuak zein arautegiak onartu, eta erkide diren alderdi eta gastuetan parte hartzeko koefizienteak finkatu eta onartzea. Zortasunak eta bestelako eskubide erreal edo pertsonal guztiak ezarri, aldatu eta azkentzea edo ezeztatzea.

h) Ondasun higigarri zein higiezinak eta mota guztietako eskubideak kudeatzea; errentan eman eta hartzea, errentak eta produktuak jasotzea; eskualdaketak onartzea; salgaiak erosi eta saltzea, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea; fakturak eta mota guztietako korrespondentzia (postala eta telegrafikoa) sinatzea.

i) Korrespondentzia postala, telegrafikoa, telefonikoa eta beste edozein motatakoa jaso, ireki eta erantzutea, posta ziurtagiriak eta balio aitortuen agiriak, posta bidezko igorpen eta bidalketa guztiak barne; era berean, tren geltokietan, aduanetan, portu guztietako kaietan eta garraio agentzietan Sozietatearen izenean bidalitako paketeak, fardelak eta gainerako gauzak jasotzea, eta dagozkion erreklamazioak egitea.

j) Era guztietako aseguru kontratuak izenpetzea, sari finkoko sozietateekin eta mutualitateekin; sariak eta dibidenduak ordaintzea; epemuga gainditu ondorengo kasuetan eta ezbeharretakoetan, auzibidez eta auzibidetik kanpo kopuruak erreklamatu eta kobratzea; polizetako baldintza orokorrak eta bereziak betetzeko eta betearazteko, sozietatearen eskubide guztiez baliatzea; eta, bereziki, kalteen tasazioan parte hartzea, adituak izendatu eta kenduz, eta eskumenak dauzkan epaitegiari beste aditu bat izendatzeko eskatuz.

k) Bankuetan, Espainiako Bankua, aurrezki kutxak, Gordailuen Kutxa Orokorra eta bulego publikoak barne, ageriko kontu korronteak, kreditu kontuak, epe finkokoak eta aurrezki kontuak, eskudiruzko gordailuak, mota guztietako balore eta efektu publikoak eratu edo ireki, diru osoa edo zati bat atera, itxi edo kitatzea. Banku kontuaren bidez mota

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

guztietako zenbateko, ordainagiri eta zerbitzuak kobratu eta ordaintzea; ordainketak helbideratzea eta dagozkion aginduak ematea; dibidendu eta irabaziak kobratzea.

l) Sozietateari zor zaiona erreklamatu, jaso eta kobratzea, zorraren jatorria eta izaera edozein izanda ere, eta zorduna bera ere edozein pertsona nahiz erakunde izanda ere; eta jasotako kopuruei dagozkien ordainagiriak, ordain aginduak, ordainketa gutunak eta behar den beste edozein agiri sinatzea.

m) Kanbio letrak, txekeak, zor agiriak, polizak, ordezkagiriak eta merkataritzako gainerako efektuak igorri, jaulki, onartu, endosatu, deskontatu, abalatu eta negoziatzea; horien guztion zenbatekoak ordaindu eta kobratzea; eta onartu edo ordaindu ez direlako, horiek onartzeari edo ordaintzeari uko egin zaielako, protestatzea.

n) Aurreko ahalmenen zati bat ordeztea, legearen arabera eskuordetu ezin daitezkeenak izan ezik, eta horretarako, dagozkion ahalordeak eman, ahalorde horiek berritu eta beste batzuk ematea, beharrezkotzat jotzen diren guztietan.

o) Eta orokorrean, Sozietatearen izenean sinatuz hura behartzea, administrazioko nahiz hertsi-hertsian jabetza arloko egintza eta kontratu mota guztietan, eta pertsona fisiko nahiz juridiko publiko eta pribatu guztien aurrean.

38. artikulua. Beste administrazio organo batzuk.

1. Administrazio Kontseiluak, bere eginkizunak hobeto betetzearren, komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ahal izango ditu bere barruan, eta beren esku utziko ditu beharrezko gaitasunak, legez eskuordetu ezin daitezkeenak izan ezik, esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko.

2. Era berean, Administrazio Kontseiluak Kontseilaritza Ordezkaria izendatu ahal izango du bere baitan; Kontseiluak eskuordetuko dizkion funtzio betearazleak izango ditu, edozein pertsonari eman ahal dizkion ahalordeak galarazi gabe.

3. Kontseilari ordezkari kargua Administrazio Kontseiluko kide den pertsonari esleituko zaio, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundian gizarte politiketan eskuduna den departamentuaren planifikazioa eta inbertsioak egiteko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiaren titularra bada edo, hala badagokio, horrelako departamentuaren titularra bada.

39. artikulua. Kontseiluko presidentearen ahalmenak.

Administrazio Kontseiluko presidenteari dagozkio, Estatutu hauen beste artikulu batzuetan esleitutakoez gain, honako ahalmen hauek:

a) Sozietatearen eta bere Administrazio Kontseiluaren ordezkaria izatea.

b) Administrazio Kontseilua biltzeko deiak egitea eta horietan mahaiburu izatea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak ebaztea, bere kalitateko botoa erabiliz, eta hartutako erabakiak betetzen direla zaintzea.

c) Administrazio Kontseiluak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bileren aktak sinatzea eta idazkariak ematen dituen ziurtagiriak ikus-onestea.

d) Sozietatearen zerbitzu guztiak ikuskatzea eta sozietate jarduera gauzatzen dela zaintzea.

e) Estatutu hauetan ezarritakoa eta Batzar Nagusiak, Administrazio Kontseiluak eta bere batzordeek hartzen dituzten erabakiak betetzen direla zaintzea.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

f) Administrazio Kontseiluak bere esku uzten dituen eskumenak baliatzea.

40. artikulua. Presidenteordearen eginkizunak.

Presidenteordeak presidentea ordezkatuko du, hura ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo ezintasuna duenean.

3. ATALA

ZUZENDARITZA NAGUSIA

41. artikulua. Zuzendaritza Nagusia.

1. Sozietatearen Zuzendaritza Nagusia, beharrezkoa izanez gero, Batzar Nagusiak izendatu eta kargugabetuko du, Administrazio Kontseiluak hala proposatuta.

2. Administrazio Kontseiluak, Sozietatearen gobernua bermatzeko behar diren ahalmenak gordeta, Zuzendaritza Nagusiari esleituko dio Sozietatearen ordezkari, administratzaile eta kudeatzaile gisa aritzeko ahalmenak modu iraunkorrean erabiltzeko eta betearazteko gaitasuna, baita dagozkion ahalmen betearazleak ere, Kontseiluak berak adierazitako mugak eta gidalerroak errespetatuz.

3. Hain zuzen, eginkizun hauek izango ditu:

a) Presidenteari eta Sozietatea atxikita dagoen Departamentuaren titularra den pertsonari laguntzea eta, unean-unean, Administrazio Kontseiluaren erabakiak gauzatu eta betearaztea.

b) Sozietatearen ohiko kudeaketaz arduratzea eta berez dagozkion erabakiak hartzea, betiere hamabost mila euro (15.000 €) baino gehiagoko konpromiso ekonomikorik bere gain hartzen ez badu; zenbateko hori Administrazio Kontseiluaren erabakiz aldatu ahal izango da.

c) Sozietateko zerbitzu eta langile guztien buruzagi izatea, zuzentzea eta bultzatzea, baita ikuskatzea ere.

d) Sozietatearen izenean sinatzea.

e) Bere jarduketaren eta Sozietatearen kudeaketari lotutako gai guztien berri Administrazio Kontseiluari eta presidenteari arduraz ematea.

f) Administrazio Kontseiluaren bileretan egotea, hitz egiteko eskubidearekin, baina botoa emateko aukerarik gabe.

g) Administrazio Kontseiluari Sozietateko langileak kontratatu eta kaleratzeko proposamenak aurkeztea, baita ordainsariak proposatzea ere, Batzar Nagusiak horretarako ezarri dituen irizpideei jarraikiz.

h) Administrazio Kontseiluak agindu edo ahalordea betez esanbidez esleitzen dizkion eginkizun guztiak.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

V. TITULUA

EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA, SOZIETATE EKITALDIA ETA URTEKO KONTUAK

42. artikulua. Araudi erregulatzailea.

Sozietate hau merkataritzako foru sozietatea denez, bere aurrekontuak, ekonomia eta finantza, kontabilitatea eta kontrola Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren xedapenen araberakoak izango dira, hain zuzen, berariaz aplikatu behar zaizkien xedapenen araberakoak, eta xedapen horiekiko kontraesanik ez dagoenean, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren aginduen eta kapital sozietateen araubide juridikoa erregulatzen duten gainerako xedapenen araberakoak.

43. artikulua. Sozietatearen ekitaldia.

Sozietatearen ekitaldia urte naturalarekin batera hasi eta bukatuko da. Salbuespenez, lehenengo ekitaldia eraketa eskrituran emateko egunean hasiko da eta urte bereko abenduaren hogeita hamaikan bukatuko da.

44. artikulua. Urteko kontuak, kudeaketa txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena.

1. Urte bakoitzaren lehenengo hiru hilabeteetan, Legeak eskatzen duen moduan eta legezko baldintzak betez, taxutuko dira urteko kontuak, kudeaketa txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena, eta, bidezko irizten bada, urteko kontuak eta kudeaketa txosten bateratua.

2. Urteko kontuek jasoko dituzte: balantzea, galdu-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbian izandako aldaketak islatzen dituen egoera orria, diru fluxuen egoera orria eta memoria.

3. Hori guztia, indarrean dagoen legediak xedatutakoari jarraikiz hautatutako kontu auditoreek aztertu beharko dute, txostena emateko.

45. artikulua. Dokumentuen egitura.

Balantzearen egitura eta aktiboaren osagaien balioespenari erantsitako gainerako dokumentuen egitura Kapital Sozietateen Legean dauden arauen araberakoa izango da.

46. artikulua. Irabaziak.

Sozietateak irabaziak izanez gero, ustiapen- eta administrazio-gastuei aurre egin ondoren, eta diru kopuruak aktiboaren baloreak amortizatzera, hala badagokio, interesak, finantza karga eta Sozietatearen gainerako betebeharrak ordaintzera, eta legezko zein borondatezko erreserbetara bideratu ondoren, irabazien zenbatekoa Batzar Nagusiak erabakitako helburuak betetzeko erabiliko da.

47. artikulua. Ekonomia- eta kontabilitate-agiriak.

1. Administrazio Kontseilua arduratuko da ekonomiarekin, aurrekontuekin eta kontabilitatearekin zerikusia duten eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Legeak edo Batzar Nagusiak derrigorrez ezarri dituzten liburu, erregistro, programa eta agiri guztiak eramateaz eta sortzeaz.

G0BEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69

2. Urteko kontuak eta kudeaketa txostena administratzaile guztiek amankomunean sinatu beharko dituzte. Administratzaile baten sinadura falta denean, sinatu ez den dokumentu bakoitzean adieraziko da, dagokion arrazoiarekin batera.

VI. TITULUA

DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

48. artikulua. Sozietatea desegiteko arrazoiak.

Sozietatea ebazpen judizial bidez desegingo da eta Legeak ezarritako kasuetan, Batzar Nagusiak hartutako erabaki bidez, Kapital Sozietateen Legearen 363. artikuluan eta hurrengoetan aipatutako baldintzak betez.

49. artikulua. Likidazioa.

Sozietatea desegiteko erabakia aginduzko moduan hartuta, Kapital Sozietateen Legearen 371. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako arauak aplikatuko dira, sozietatea desegitea burutzeko.

50. artikulua. Sozietatearen hartzekoa banatzea.

Sozietatearen ondarea edo hartzeko likidoa, likidazioaren ostekoa, akzioen artean banatuko da, jarritako kapitalaren proportzioan.

VII. TITULUA

DESADOSTASUNAK ETA BESTE XEDAPEN BATZUK

51. artikulua. Desadostasunak.

Administrazio Kontseiluan sor daitezkeen desadostasunak Batzar Nagusiak ebatziko ditu.

52. artikulua. Lege arauetara igortzea.

Estatutu hauek lege arauak aipatzen dituzten bakoitzean, indarrean daudenak interpretatu, zabaldu, baldintzatu edo aldatzen dituzten horiek aipatu nahi dituztela ulertu behar da, Sozietateak bere borondatez erabakitzeko uzten ez duten guztian.

53. artikulua. Eskumena.

Estatutu hauek interpretatu edo aplikatzean sortzen diren eztabaidak egoitza sozialari dagozkion auzitegi eta epaitegien jurisdikzio eta eskumenaren mende jarriko dira.

EKS | CSV: GOBEd7ca8b52-caff-4db6-9365-f693399cbd69
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Ziurtagiria_2025-0417.pdf

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

BERASALUZE LAZKANO, IRUNE

Foru Diputatua. Gobernantza Departamentua
Diputada Foral. Departamento de Gobernanza

Data / Fecha: 2025/10/30 10:38:49